



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

206. INFORMAZIO BULETINA

2025eko martxoa



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea

2025eko martxoa

ALBISTEAK

Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen bizikleta-bideei buruzko trebakuntza-tailerra egin da.

Tailerra Bizikleta Bideetako Berdintasunari buruzko Lantaldeak bultzatu du, foru aldundiek eta Emakundek osatua.

2015ean, Europar Batasunaren Egitura Funtsetan Berdintasunari buruzko Erakundearteko Lantalde Teknikoa (GTIFFE) sortu zen. Emakunde lan taldearen burua da, egitura-funtsen programen koordinazioan eta kudeaketan parte hartzen duten erakundeen ordezkariarekin (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak), eta erakunde horietako berdintasun-organoekin. 2021-2027 programazio-aldian, FEDER, FSE+, FEMPA eta FEADER funtsetan du eragina taldeak.

GTTIFEn testuinguruan, EGEFek (2021-2027) finantzatutako bizikleta-bideen diseinuan eta garapenean genero-ikuspegia txertatzearen garrantzia ikusita, Bizikleta Bideetan Berdintasunari buruzko Lantaldea sortu zen. Talde hori Emakundek eta foru-aldundiek osatzen dute.

Otsailaren 25ean egin den tailerrean, Europako Funtsen kudeaketa- eta koordinazio-organoetako ordezkariak, berdintasun-organoetako ordezkariak eta bizikleta-bideen eragiketak diseinatu eta egikaritzen dituzten organo kudeatzaileetako ordezkariak parte hartu dute.

Saioaren helburua izan da bizikleta-bideen plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia aintzat har dadin sentsibilizatzea, gaitzea eta esperientziak trukatzeko, baita bide-orri komuna diseinatzea ere, Eskualde Garapeneko Europako Funtsetan 2021-2027 aldian garatzeko.

Tailerrean Sara Ortiz Escalante soziologoak eta Col-lectiu Punt 6ko hirigile feministak parte hartu du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, Jasangarritasun Departamentuko teknikari batek Aldundiak bizikleta bideen oinarritzko sarean genero ikuspegia txertatzen duen esperientzia azaldu du.

2027ko Europako Hiriburu Berdea eta Hosto Berdea sarietako deialdia zabalik.

Deialdia 2025eko apirilaren 15era arte dago zabalik.

Europako Batzordeak antolatzen du 2027ko Europako Hiriburu Berdearen Sarirako eta 2027ko Green Leaf Sarirako deialdia.

Helburu nagusia da nabarmentzea eta saritzea hiriek egiten dituzten ahaleginak tokiko ingurumen-inpaktua eta inpaktu globala murrizteko, eta, aldi berean, bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen dutenak.

Europako Hiriburu Berdearen Sariak, 100.000 biztanletik gorako hirientzat da, irabazleak 600.000 euroko saria eskura dezake. Bestalde, European Green Leaf Award-ek, 20.000 biztanletik gorako hiri txikiagoei zuzendua dago eta 200.000 € jasotzeko aukera eskaintzen du. Laguntza finantzarioaz gain, irabazleek Europako hiri liderren sare gero eta handiagoarekin bat egingo dute. Hiri horiek ikuspegi eta esperientzia berdina dute, eta beste batzuk inspiratzen dituzte beren urratsak jarraitzeko.

2025eko martxoa

Informazioa gehiago: [Europako Batzordearen web gunea](#).

REGIOSTARS 2025 sarien deialdia.

Hautagaitzak 2025eko maiatzaren 20ra arte aurkez daitezke.

REGIOSTARS sariak urtero ospatzen dira 2008tik. Urteetan zehar, bikaintasun-zigilu bihurtu dira eskualdegarapenean eragina duten Europako proiektuetarako.

2025eko ediziorako, kohesio-politikarekin lotutako proiektu onenak sarituko dira, 5 kategoriarekin:

1. kategoria: Europa lehiakorra eta adimenduna.
2. kategoria: Europa Berdea.
3. kategoria: Europa Konektatua.
4. kategoria: Europa Sozial eta Inklusiboa .
5. kategoria: Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa.

Proiektuak akademiko ospetsuez osatutako epaimahai batek ebaluatuko ditu. Irabazleak 2025eko urrian iragarriko dira REGIOSTARS zeremonian, EURegionsWeek-en, eta sustapen-kanpaina bat jasoko dute beren proiekturako.

Informazioa gehiago: [REGIOSTARS web gunea](#).

Gipuzkoako toki-erakundeen udal-eroldaren eraldaketa digitala eta modernizaziorako kontratua lizitatu da.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez.

IZFEk (Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte) lizitatu du kontratua, eta haren jarduera nagusia da zerbitzu informatikoak ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeei eta hala eskatzen duten Gipuzkoako Lurralde Historikoko beste toki erakunde batzuei.

Kontratuaren xedeari esker, Gipuzkoako udalerrietako udal-errola digitalki eraldatu eta modernizatu ahal izango da. Horretarako, udal-errola kudeatzeko sistemak tokiko zergak kudeatzeko sistemekin (Katastroa) integratuko dira, lurraldeko informazioa eta biztanlearena bereiziz eta biztanle, etxe eta etxebizitzarekin lotutako datuak bereizita egituratuz.

Beste helburu batzuen artean, udal bakoitzak bere etxebizitzaren datu-basea behar bezala identifikatuta edukitzea da asmoa, estatu mailan etxebizitzaren identifikatzaile bakarra egotea barne, CIV kodea, katastroko erreferentziatik (RC) eratorriko litzatekeena.

Era berean, Biztanleen Udal Errola kudeatzeko sistemak Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) denbora errealean integratzeko proiektua aztertu eta diseinatuko da.

2025eko martxoa

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 1,6 milioi eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko marxoaren 31n amaituko da.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen du (Next Generation funtsak), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) bidez. Zehazki, plan horren 11. osagaiaren barruan (3. inbertsioa), "Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren eta autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazioaren eraldaketa digitala eta modernizazioa". Europar Batasunaren finantzaketa 1.583.170,38 eurokoa izango da.

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#).

Oria, Salubita, Granadaerreka eta Oñati ibaien arroetan oztopoak iragazkortzeko obrak lizitatu dira.

Proiektu hau Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.

Obrak bost oztopo iragazkortzea aurreikusten du lau ibaitan, eta horien definizioa eraikuntza proiektu hauetan zehazten da.

- Arrapala proiektua Bentaundi presa zaharrean, Oria ibaian (Tolosa)
- 6. eta 7. presa txikiak iragazkortzeko proiektua, Salubita errekaetan (Tolosa)
- Illarragorri presa txikia Granada errekan (AIA) eraisteko proiektua 3. fasea
- Itavex presa txikia Oñati ibaian (Arrasate, Bergara eta Oñati) eraisteko proiektua.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 200.425,85 eurokoa da, eta eskaintzak aurkezteko epea 2025eko apirilaren 22an amaituko da.

Obra horiek Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiak bultzatutako Oztopoak Iragazkortzeko 2020-2035 Plan Zuzentzailearen barruan sartzen dira. Plan horrek konpromiso sendoa dakar gure ur-ibilguak lehengoratzearekin, ibai-habitata berreskuratzea bultzatuz, arrain-espezieen migrazio-mugimenduetarako oztopo diren elementuak kenduz. Gainera, ekosistema horiek klima-aldaketara egokitzea ahalbidetzen duten neurriak dira, uholde-egoeretan ibaiak gainezka egiteko arriskua murrizten dute eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) integratzen laguntzen dute.

Proiektu hau Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko du, 2.7 helburu espezifikoaren barruan: "natura, biodibertsitatea eta azpiegitura ekologikoak (edo berdeak) babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea".

Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#).

Mugaz gaindiko sei lankidetzaproiektu onartu dira Mendebaldeko Eremu Funtzionalean, POCTEFA programaren barruan.

Finantzatutako proiektuek hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola enplegua, mugikortasuna eta eleaniztasuna.



2025eko martxoa

Mendebaldeko Eremu Funtzionala (AFOMEF) Espainiaren, Frantziaren eta Andorraren arteko mugaz gaindiko lankidetzatza sustatzen duen POCTEFA Europako programaren barruan definitutako bost arlo funtzionaletako bat da. AFOMEFek Euskadiko, Nafarroako eta Akitania Berriko lurraldeak hartzen ditu, itsasertzetik Baretous haraneraino.

Ekimenek 23 milioi euroko inbertsio globala suposatzen dute, eta horietatik 14,8 milioi EGEF funtsekin finantzatzeko dira.

Hauek dira hautatutako sei proiektuak:

- LANEAN: Mugaz gaindiko lan-merkatu integratua sustatzea.
- TRANSFERMUGI: Zerbitzuen elkarreragingarritasuna eta mugaz gaindiko mugikortasun-sarea sortzea.
- MUGAZIKLO: Bizikleta azpiegituren garapena eta mugikortasun iraunkorraren sustapena.
- SAREBIDE: Euskarazko komunikabideen eraldaketa digitala.
- EUSGUNEAK: Euskararen erabilera sustatzea eta hezkuntza-azpiegiturak modernizatzea.
- HEZHI: Eleaniztasuna eta irakaskuntza-prestakuntza sustatzea mugaz gaindiko eremuan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak LANEAN, TRANSFERMUGI, MUGAZIKLO eta HEZHI proiektuetan parte hartuko du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartuko du LANEAN proiektuan, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren bidez, TRANSFERMUGI proiektuan, Mugikortasun Departamentuaren bidez, MUGAZIKLO proiektuan, Jasangarritasun Departamentuaren bidez eta HEZHI proiektuan, bazkide elkartu gisa.

Informazioa gehiago: [POCTEFA web orria](#) (gaztelaniaz).



2025eko martxoa

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Agortu da “Lehen lanbide-esperientzia administrazio publikoetan» izeneko programa finantzatzeko aurrekontu-kreditua, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. [**Informazio gehiago.**](#)

20.000 biztanletik beherako udalerrietan jarduera fisikoarekin lotutako orientazio-zerbitzuak ezartzeko eta mantentzeko tokiko kirol- eta komunitate-egiturak eta espazioak egokitzera eta hobetzera bideratutako 2025eko dirulaguntza-deialdia, Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (BEEP). *Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 14an amaituko da.* [**Informazio gehiago.**](#)

[**“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea**](#)